

MUko ikasleen bi taldek hartu zuten parte atzoko Herri Kirol Txapelketan

2013/05/31

Guztira hiru talde animatu ziren eguraldi petralari aurre eginez, Arrasateko plaza nagusian antolatutako Herri Kirol Txapelketan. MUko bi taldeak eta errugbi taldeko partaideak lehiatu ziren udaletxeko arkupetan burutu genituen hurrengo probetan; gizon proba, ingudea, soka tira, txingak eta trontza. Proba guztietan egindako denborak edo/eta metroak neurtu ziren irabazleak izendatzeko.

Azkenean MUko "Manada HT" taldeak lortu zuen garaipena, baina guztiontzat egon ziren sariak (ARE eta MUko Kirol Zerbitzuaren eskutik), egun honetan garrantzitsuena parte hartzea bait zen. Honela, izerdi galantak bota ondoren, garagardoarekin freskatzeko aukera izan zuten parte hartzaileek.

Info gehiago [facebookean](#) eta [mondraberri aldizkari digitalean](#)

Eskerrik asko parte hartzaile guztiei!!

